



ARESOko UDALA

# **BANDOA:** **ERORITAKO ZUHAITZAK**

Aresoko Udalak baso komunaletan eroritako zuhaitzak eskuratzeko, azaroaren 4ra bitarte, aukera ematen du eta herriko zerrenda bat osatuko du. Aurretik dagoen zerrenda erabiliko da eta egurra hartzeko interesik ez badago Udalari jakinarazi.

Egur guztia prest dagoela, zozketa gauzatuko da, aurreko aldietan erabili den sistema berdina erabiliz. Zozketa Udalak egingo du eta nahi duena presentzialki etorri ahalko da. Zozketa ondoren, Udalera etorri denari egurraren kokalekua eta balioa emango zaio.

Lote ezberdinak dira eta bakoitzak kokaleku eta balio desberdina izan dezake. Zozketa sistemaren arabera, edozein tokitako egurra atera daiteke.

Egurraren balioa diruz edo transferentzia bidez (**gomendagarriena**) ordaindu beharko da eta ordainagiria aurkeztu.

Zozketa azaroaren 5ean egingo da, 14:00etan.

Egur loteak dauden tokiak:

- Hirimugarrieta
- Zotzono
- Perratokieta
- Meru
- Museo
- Gañarbe

Gogorazten da eroritako zuhaitz hauen banaketa ondoko arauetara lotuta dagoela (6/1990 FL):

- a) Adinez nagusia edo adingabe emantzipatua edo judizialki gaitua izatea.
- b) Udal erroldan inskribatuta egotea, gutxienez 1 urteko antzintasunarekin.
- c) Gutxienez urtean 9 hilabetez Areson era efektibo eta jarraian bizitzea.
- d) Onuradunak, lotuta dagoen toki-erakundeekiko, zerga-betebeharrak bete eta zorrik ez izatea.

Areson, 2021eko urriaren 28an.

Jose Otermin Echarri  
Alkatea